

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

5416

**56/2011 FORU DEKRETUA, irailaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortzen eta arautzen duena.**

Eusko Legebiltzarraren Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 148. artikulua xedatzen du hirigintza intereseko elkarteak sortzeko ezinbesteko betekizun dela dagokion lurralde historikoko hirigintza sailaren menpeko hirigintza intereseko elkartearen erregistroan inskribatuta izatea.

Lege horren hirugarren xedapen gehigarriak jasotzen du erregistro horiek Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroa oinarri dutela sortzeko direla, eta horiek dagokion lurralde historikoko hirigintza sailaren menpe egongo direla.

Eusko Legebiltzarraren Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, azken xedapenetako lehenengoan, bere xedapenen arau garapena ezarri zuen, egun egiteke dagoena.

Asmo hori dela eta, arau garapenaren zain egon izan da, zeren eta garapen horrek dekretu honen helburu diren elkartearen sorrera prozesuari eragin baitiezaioke.

Arau garapenik egon ez izanak arautegirik ez izatea ekarri du. Gabezia hori Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak arindu du neurri batean. Izan ere, dekretu horrek, besterik ezean, haren ordeztu, Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onartzen duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua aplikatzea onartzen du. Beraz, haren 161. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da hirigintza intereseko elkartearen sorrera prozesuan.

Egun, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arautegi bidezko garapena onartzeke dagoenez gero, indarrean dagoen arautegia oinarri, foru dekretu hau onartzea erabaki da. Foru dekretu honek Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortzea du helburu, bai eta erakunde horiek hartan artxibatze eta errolatzeko jardunbidea arautzea ere.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

## 1. Artikulua. Arautegiaren xedea

1.1. Arautegi honek Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen erregistroa arautzea du helburu, bai eta haren antolamendua eta egitura, funtzionamendua eta inskripzio prozedura ere.

1.2. Hirigintza intereseko elkarteak dira Eusko Legebiltzarraren Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 148. artikuluan jasotakoak.

## 2. artikulua. Erregistroaren helburua

2.1. Hirigintza arloan eratzen diren hirigintza intereseko elkarteetako buruzko informazioa eman nahi du erregistroak.

2.2. Erregistroan inskribatzen direnetik aurrera izango dute nortasun juridikoa hirigintza intereseko elkarteek.

2.3. Nahitaez inskribatuko dira erregistroan hirigintza intereseko elkarteak, halaxe xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 148.4 artikulua.

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

5416

**DECRETO FORAL 56/2011, del Consejo de Diputados de 20 de septiembre, que crea y regula el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico del Territorio Histórico de Álava.**

El artículo 148 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, establece como requisitos para la creación de las Agrupaciones de Interés Urbanístico la inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico dependiente del Departamento de Urbanismo del territorio histórico correspondiente.

La Disposición Adicional Tercera de la citada Ley, recoge la creación de estos registros a partir de los Registros de Entidades Urbanísticas Colaboradoras y su dependencia del Departamento de Urbanismo de cada territorio histórico.

La Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo estableció en su Disposición Final Primera un desarrollo reglamentario de sus disposiciones, que hasta la fecha no se ha producido.

En atención a esta previsión, se ha estado a la espera de este desarrollo reglamentario que podría afectar al procedimiento de creación de las Agrupaciones objeto de este Decreto.

Esta falta de desarrollo reglamentario ha provocado una situación de ausencia de regulación, aclarada en parte por el Decreto 105/2008, de 3 de junio del País Vasco, que confirma la aplicación supletoria del Real Decreto 3288/1978, de 25 de agosto por el que se aprueba el Reglamento de Gestión Urbanística. Por tanto, lo recogido en sus artículos 161 y siguientes será de aplicación al procedimiento de creación de las Agrupaciones de Interés Urbanístico.

Actualmente, continúa sin aprobarse el desarrollo reglamentario de la Ley del Suelo u Urbanismo vasca, por lo que se ha decidido aprobar, con la normativa en vigor, este Decreto Foral, que tiene por objeto crear el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico, así como regular el procedimiento de archivo e inscripción de las citadas entidades.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral titular del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy

## DISPONGO

## CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

## Artículo 1. Objeto del Reglamento

1.1. Este Reglamento tiene por objeto regular el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico del Territorio Histórico de Álava, su organización y estructura, el funcionamiento y procedimiento de inscripción en el mismo.

1.2. Se entiende por Agrupaciones de Interés Urbanístico las recogidas en el artículo 148 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo

## Artículo 2. Finalidad del Registro

2.1. El Registro tiene como finalidad servir como instrumento de información sobre las Agrupaciones de Interés Urbanístico que se constituyan en materia de urbanismo.

2.2. La personalidad jurídica de las Agrupaciones de Interés Urbanístico se entenderá adquirida a partir del momento de su inscripción registral.

2.3. Será obligatoria la inscripción de las Agrupaciones de Interés Urbanístico, conforme a lo recogido en el artículo 148.4 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo

## 3. artikulua. Erregistroaren izaera publikoa

3.1. Arautegi honetan araututako administrazio erregistroak izaera publikoa du.

3.2. Erregistroan jasotako agirien kontsulta arautegi honen 14. artikuluan jasotakoaren arabera egingo da.

3.3. Garapen arautegiarekin bat etorritz, erregistro hori telematikoa izango da, hau da, oro har, bitarteko informatikoen bidez kontsultatu ahal izango da eta, bereziki, komunikazio sare irekien bidez.

## 4. artikulua. Atxikipena

Hirigintza arloan eskumena duen sailari atxikiko zaio arautegi honen erregistroa, eta hirigintza arloan eskumena duen zuzendaritza orokorraren menpe egongo da, organikoki eta funtzionalki.

## 5. artikulua. Erregistroaren kudeaketa

5.1. Hirigintza Zerbitzuak kudeatuko du erregistroa.

5.2. Erregistroa kudeatzeko ardura duenak berak izango du hura gobernatzeko ardura. Hona hemen haren zereginak:

- a) kudeatzea eta onik zaintzea,
- b) justifikazio agirien zaintza,
- c) haren funtzionamendua koordinatzea,
- d) haren bilakaeraren jarraipena egitea,
- e) erregistro idazpenak egitea,
- f) erregistro idazpenak egiztatzea,
- g) haren izaerari dagokion beste zeregin oro.

## 6. artikulua. Lankidetzaren printzipioa

Indarrean dagoen legerian xedatutakoarekin bat etorritz, toki erakundeek eta autonomia erkidegoko administrazioak elkarlanean jardungo dute, lurralde antolamenduaren alorrean eskumena duen sailaren bitartez, erregistroa egoki kudeatzeko. Helburu horrekin, beharrezkoa den informazio eskuratuko diote elkarri.

## II. KAPITULUA. ERREGISTROAREN EGITURA ETA ANTOLAMENDUA

Lehen Atala. Arau orokorrak

## 7. artikulua. Informazioa antolatzea.

7.1. Euskarri informatiko bidez egingo da erregistroa.

7.2. Erregistroko zati den informazioa ondokoan arabera antolatuko da:

- a) Erregistro liburua: kapitulu honen bigarren atalarekin zerikusia duten idazpenak jasoko ditu.
- b) Agiriak artxibatzea: erregistroko zati izango diren agiriak (kapitulu honen hirugarren atalean zerrendatutakoak) jasoko ditu.

Bigarren atala. Erregistro idazpenak

## 8. artikulua. Idazpen motak

Erregistro liburuan ondoko idazpenak egingo dira:

- a) Inskripzioa: elkartearen hasierako inskripzioa jasoko du.
- b) Aldaketa: zernahi gorabehera jasoko du, baldin eta hirigintza intereseko elkarteari eragiten badiu eta emandako datuetan aldaketa badakar.
- c) Ohar osagarriak: erregistroan inskribatu den elkartearen indarraldiari edo eginkizunei eragiten dieten ebazpen administrazio edo judizialak.
- d) Balioz gabetzea: zernahi dela eta, idazpenak indarraldia galtzen badu, idazpen hori ezabatu egingo da.

e) Zuzenketak idaztea: bi eratakoak izango dira zuzenketak:

i) Erregistroko arduradunak zuzenduko ditu idazpenetan egindako huts materialak, egitezkoak edo aritmetikoak. Huts horiek ofizioz edo alderdi batek eskatuta zuzenduko dira, zuzenketa ohar bidez.

ii) Gainerako hutsak zuzenketarako administrazio egiaztagiri egokia egindakoan zuzenduko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 26 Legearen 30/1992 artikuluekin bat etorritz.

## Artículo 3. Naturaleza pública del Registro

3.1. El registro administrativo regulado en este Reglamento tiene carácter público.

3.2. El régimen de consulta y acceso a la documentación contenida en el Registro se efectuará conforme a lo dispuesto en el artículo 14 de este Reglamento.

3.3. Este Registro deberá tener, de acuerdo con la normativa de desarrollo, carácter telemático, de modo que se facilite el acceso y consulta por medios informáticos, y en particular por redes abiertas de comunicación.

## Artículo 4. Adscripción

El Registro de este Reglamento se adscribe al Departamento competente en materia de urbanismo, bajo la dependencia orgánica y funcional de la Dirección General competente en materia de urbanismo.

## Artículo 5. Gestión del Registro

5.1. La gestión del Registro se llevará a cabo por el Servicio de Urbanismo.

5.2. El encargado de la gestión del Registro será el responsable de la llevanza del mismo, correspondiéndole:

- a) su gestión y mantenimiento,
- b) la custodia de la documentación justificativa,
- c) la coordinación de su funcionamiento,
- d) el seguimiento de su evolución,
- e) la práctica de los asientos registrales,
- f) la certificación de los asientos registrales,
- g) otras funciones que sean inherentes a su condición.

## Artículo 6. Principio de colaboración

Las Entidades Locales y la Administración de la Comunidad Autónoma, a través del Departamento competente en materia de ordenación del territorio colaborarán de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente para la adecuada gestión del Registro. Con esta finalidad se facilitarán recíprocamente cuanta información sea necesaria.

## CAPÍTULO II. ESTRUCTURA Y ORDENACIÓN DEL REGISTRO

## Sección primera. Normas Comunes

## Artículo 7. Ordenación de la información.

7.1. El Registro se llevará mediante soporte informático

7.2. La información que forme parte del Registro se ordenará distinguiendo:

- a) Libro de registro: contendrá los asientos relacionados en la Sección segunda del presente capítulo.
- b) Archivo de la documentación: contendrá los documentos que hayan de formar parte del Registro, relacionados en la Sección tercera del presente capítulo.

## Sección segunda. Asientos registrales.

## Artículo 8. Tipos de asientos.

En el libro de registro se practicarán los siguientes asientos:

- a) Inscripción: comprenderá la inscripción inicial de la Agrupación.
- b) Modificación: comprenderá cualquier circunstancia que afecte a la Agrupación de Interés Urbanístico y que suponga modificación de los datos inscritos.
- c) Anotación accesorio: comprenderá la anotación de las resoluciones administrativas o judiciales que afecten a la vigencia o ejecutividad de la Agrupación inscrita en el Registro.
- d) Cancelación: supondrá la extinción del asiento cuando, por cualquier circunstancia, se produzca la pérdida de vigencia del asiento del que trae causa
- e) Anotación de rectificación: las rectificaciones serán de dos tipos:

i). Los errores materiales, de hecho o aritméticos, que se detecten en el contenido de los asientos practicados serán rectificadas, de oficio o a instancia de parte, por el propio encargado del Registro mediante la anotación de rectificación.

ii). El resto de errores deberán corregirse una vez que se expida la correspondiente certificación administrativa de rectificación, de conformidad con la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

## 9. artikulua. Idazpenen edukia

9.1. Erakundearen lehen inskripzioak, gutxienez, ondokoak jasoko ditu:

- a) Udalerria.
  - b) Erakundearen izena.
  - c) Erakunde mota.
  - d) Helbidea.
  - e) Zer eremuri eragiten dion.
  - f) Onartze erabakien data eta zer organok hartzen dituen erabaki horiek.
  - g) Zuzendaritza organoa osatzen duten kideak.
  - h) Idazpenaren data eta erregistroaren arduradunaren izenpea.
- 9.2. Baliogabetze idazpenek honako hauek jasoko dituzte:

- a) Baliogabetzen den idazpena.
  - b) Baliogabetzearen zergatia.
  - c) Baliogabetzea dakarren ebazpen administratibo edo judizialaren data eta ebazpen hori hartzen duen organoaren izena.
  - d) Idazpenaren data eta erregistroaren arduradunaren izenpea.
- 9.3. Gainerako idazpenek, gutxienez, ondokoak jasoko dituzte: idazpena justifikatzen duen ebazpen administratibo edo judizialaren data, idazpenaren data eta erregistroaren arduradunaren izenpea.

Hirugarren atala. Agiriak artxibatzea

## 10. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Inskripzioa eskatzen duen udal idazkia.
- b) Eratze eta kargu izendatze erabakia.
- c) Eratze eskritura publikoaren kopia egiaztatua.
- d) Estatutuen kopia egiaztatua.
- e) Eratzea onartzen duen udal erabakiaren ziurtagiria.

f) Hirigintza intereseko elkarteak sortzeko, indarrean dagoen arautegian zehaztutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak, hots, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 148., 161., 162. eta 163. artikulua eta Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onartzen duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 161. artikulua eta hurrengoak.

g) Kokapen planoak, 1: 5.000 eskalakoa.

## III. KAPITULUA. ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROZEDURA

## 11. artikulua. Hasiera

11.1. Hirigintza Intereseko Elkarteak inskribatzeko prozedurari hasiera emateko, elkarteak eratzea onartu duen udalak eskaera egin beharko du eta eskaerarekin batera dekretu honen 10. artikuluan zerrendatzen diren agiriak aurkeztuko.

11.2. Inskripzio eskaera erregistroan aurkeztuko da. Horretarako, bi hilabete izango dira organo eskudunak elkarteak eratzea onartzen duenetik aurrera kontatuta.

11.3. Inskripzio eskaera elkarteak egoitza daukan lurralde eremuari dagokion udalak aurkeztuko du.

## 12. artikulua. Inskribatutako datuak aldatzea

12.1. Inskribatutako hirigintza intereseko elkarteari eragiten dion zernahi daturen aldaketa jakinaraziko da, bai eta indarraldiari dagozkionak ere, idatzita edo jasota gera daitezten.

12.2. Horretarako, eskaera aurkeztuko da eta, harekin batera, aldaketaren eragile den ebazpen administratibo edo judizialaren testu osoa.

12.3. Jakinarazpen hori aurkezteko bi hilabete izango dira, aldaketaren eragile edo arrazoi den ebazpen administratibo edo judiziala eman zeneko egunetik aurrera.

12.4. Hasierako inskripzio eskaera egitera behartutako udalak jakinaraziko du aldaketa.

## 13. artikulua. Idazpena egitea

13.1. Errolda kudeatzearen arduradunak aztertuko ditu aurkeztutako agiriak.

13.2. Aurkeztutako agiriak aztertuta, ez bada ezer falta, erregistroaren arduradunak elkarteak inskribatzeko proposatuko dio eskumena duen foru diputatuari, foru agindu bidez inskribatzeko agindu dezan.

## Artículo 9. Contenido de los asientos

9.1. La inscripción inicial de las entidades contendrá, al menos, las siguientes circunstancias:

- a) Municipio.
- b) Denominación de la entidad.
- c) Tipo de entidad.
- d) Domicilio.
- e) Ámbito al que afecta.
- f) Fecha de los acuerdos de aprobación y órganos que los adoptan.

g) Personas del órgano rector.

h) Fecha del asiento y firma de la persona encargada del Registro.

9.2. Los asientos de cancelación contendrán, al menos, las siguientes circunstancias:

- a) Asiento que se cancela.
- b) Causa o razón de la cancelación.
- c) Fecha de resolución administrativa o judicial que determine la cancelación y órgano que lo adopta.

d) Fecha del asiento y firma de la persona encargada del Registro.

9.3. El resto de los asientos contendrán al menos la fecha de la resolución administrativa o judicial que justifica el asiento, la fecha del asiento y la firma de la persona encargada del Registro.

Sección tercera. Archivo de documentación

## Artículo 10. Documentación a presentar.

La documentación a presentar será la siguiente:

- a) El escrito municipal por el que se solicita la inscripción.
- b) El acuerdo de constitución y nombramiento de cargos.
- c) Una copia adverada de la escritura pública de constitución.
- d) Una copia adverada de los estatutos.
- e) Un certificado del acuerdo municipal aprobatorio de dicha constitución.

f) Documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos fijados en la normativa en vigor para la creación de la Agrupaciones de Interés Urbanístico, siendo además de los artículos 148, 161, 162 y 163 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, los artículos 161 y siguientes del Real Decreto 3288/1978, de 25 de agosto por el que se aprueba el Reglamento de Gestión Urbanística.

g) Un plano de situación a escala 1: 5.000.

## CAPÍTULO III. PROCEDIMIENTO DE INSCRIPCIÓN REGISTRAL

## Artículo 11. Iniciación

11.1. El procedimiento de inscripción de la Agrupación de Interés Urbanístico se iniciará con la presentación, por parte del ayuntamiento que haya aprobado la constitución de la Agrupación, de solicitud, a la que se añadirán los documentos que se indican en el artículo 10 de este Decreto.

11.2. La solicitud de inscripción en el Registro deberá presentarse en el plazo de dos meses desde la fecha de la aprobación de la constitución por el órgano competente

11.3. La solicitud de inscripción se presentará por el Ayuntamiento en cuyo ámbito territorial tenga la sede la Agrupación.

## Artículo 12. Modificación de datos inscritos

12.1. Se deberá comunicar cualquier modificación que afecte a una Agrupación de Interés Urbanístico inscrita en el Registro, o a su vigencia, para practicar el correspondiente asiento.

12.2. Para ello se deberá presentar la solicitud, adjuntando el texto íntegro de la resolución administrativa o judicial de la que traiga causa la modificación.

12.3. La presentación de la comunicación deberá realizarse en el plazo de dos meses desde la fecha de la resolución judicial o administrativa que sea la causa de la modificación.

12.4. La comunicación de la modificación deberá realizarla el Ayuntamiento obligado a la solicitud de la inscripción inicial.

## Artículo 13. Práctica del asiento

13.1. El encargado de la gestión del Registro analizará la documentación presentada

13.2. A la vista de la documentación remitida, si la misma está completa, el encargado del Registro propondrá su inscripción a el/la Diputada Foral competente para que ordene la inscripción mediante Orden Foral.

13.3. Inskripzio idazpena egiteko, bi hilabete izango dira eskaera aurkezten denetik aurrera.

13.4. Inskribatutakoan, erregistroaren arduradunak erregistro ziurtagiria egingo du eta udal eragileari jakinaraziko dio. Udal hori behartuta dago ebazpena interesdunei jakinaraztera.

13.5. Agiri guztiak aurkezten ez badira edo betekizunak betetzen ez badira, erregistroa kudeatzearen arduradunak idazpena egitea eskatu duen administrazio publikoari eskatuko dio gabeziak zuzen ditzala, bai eta ohartarazi ere, hiru hilabete igaro eta eskaeran aipatutako gabeziak zuzendu ez badira, espedientea iraungi egingo dela.

#### 14. artikulua. Erregistroko informazioa eskuratzea

14.1. Pertsona edo erakunde orok du eskueran erregistroan jasotako informazioa, aplikagarri den arautegiarekin bat etorritik, batez ere, Eusko Legebiltzarren Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearekin bat etorritik.

14.2. Erregistroaren arduradunak eskatzen zaizkion ziurtagiriak egingo ditu. Horretarako, 15 egun izango ditu eskaera egiten denetik aurrera.

#### 15. artikulua. Errekurtsoak

Erregistroan inskribatzea ukatzen duen erabakiaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera.

### XEDAPEN IRAGANKORRA

#### Lehen Xedapen Iragankorra

Dekretu honen arabera ebatziko dira dekretu honen helburu diren eta dekretu hau indarrean sartzean izapidetzen ari diren espedienteak.

### AZKEN XEDAPENAK

#### Azken xedapenetan lehenengoa

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundian hirigintza arloaren eskumena duen foru diputatuari Hirigintza Intereseko Elkarleen Erregistroa garatu eta gauzatzeko ezinbesteko diren xedapenak emateko.

#### Azken xedapenetan bigarrena

Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 2011ko irailaren 20a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

### *Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

5406

**495/2011 ERABAKIA, irailaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, ARABAKO LANAK SA enpresaren administrazio kontseiluari proposatzen zaio Román Santamaría Aranzabal jauna izendatzea zuzendari-kudeatzaile.**

2011/2015 legegintzaldirako beste foru gobernu bat eratu denez gero, foru administrazioak legez parte hartzen duen organismoetako eta sozietateetako gobernu eta administrazio organoetan izango dituen ordezkariak izendatu behar dira.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputatuen Kontseiluari dagokio bere ordezkariak hautatzea organismo eta erakunde publiko zein pribatueterako.

13.3 El asiento de inscripción deberá practicarse en el plazo máximo de dos meses desde la solicitud

13.4 Practicada la inscripción, el encargado del Registro emitirá la certificación registral correspondiente y lo comunicará al Ayuntamiento actuante, estando éste obligado a notificar la resolución a los afectados.

13.5. Si la documentación no estuviese completa o no cumplierse los requisitos exigidos, la persona encargada de la gestión del Registro requerirá a la Administración pública que haya solicitado la práctica del asiento correspondiente para que subsane las deficiencias, con la advertencia de que se producirá la caducidad del expediente transcurridos tres meses sin que hayan sido subsanados los defectos objeto del requerimiento.

#### Artículo 14 Acceso a la información del Registro

14.1. Cualquier persona o entidad interesada puede acceder a la información contenida en el Registro, conforme a la normativa de aplicación, en especial en la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

14.2. El encargado del Registro librará las certificaciones que le sean requeridas en el plazo de 15 días desde su recepción.

#### Artículo 15 Recursos

Contra la denegación de la inscripción en el Registro cabrá recurso, conforme a lo indicado en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

#### Disposición Transitoria Primera.

Los expedientes objeto de este Decreto que a la entrada en vigor se encuentren en tramitación se resolverán conforme al presente Decreto.

### DISPOSICIONES FINALES

#### Disposición Final Primera.

Se autoriza a el/la Diputado Foral competente en materia de urbanismo de la Diputación Foral de Álava para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico.

#### Disposición Final Segunda.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 20 de septiembre de 2011.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

### *Acuerdos del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DIPUTADO GENERAL

5406

**ACUERDO 495/2011, del Consejo de Diputados de 20 de septiembre, que propone al Consejo de Administración de ARABAKO LANAK, S.A. el nombramiento de Don Román Santamaría Aranzabal como Director-Gerente.**

Como consecuencia de la constitución y configuración del nuevo Gobierno Foral (legislatura 2011/2015) procede la designación de representantes en los órganos de gobierno y administración de los Organismos y Sociedades en los que está previsto legalmente la participación de la Administración Foral.

Según lo dispuesto en el artículo 8 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, corresponde al Consejo de Diputados designar a los representantes de la Diputación Foral en cualesquiera Organismos e Instituciones Públicas o Privadas.